

Gure kuadrillan...

Ikasbiletik hartua eta IKA n moldatua

Lanketa honetan kuadrillako lagunengandik inguruan arituko gara eta haiekin bizitako pasadizo bat kontatuko dugu. Bestalde, lagunatasuna apurtzeko arrazoiak ere aztertuko ditugu.

1- Nolako adiskideak dituzu?



Aurreko argazki guztietan lagunak ageri dira, baina oso desberdinak, bizitzako garai desberdinetakoak. Gogoan al dituzu zureak?

a) Garaian garaiko laguna(k):

Maskota bat zure haurtzaroan: _____
Eskola-garaiko zure lagun mina: _____
Institutu-garaiko kuadrilla: _____
Sare sozialetako lagunak: _____
Helduaroko lagunak: _____

b) Lagun asko dituzu?

- Lagun min gutxi ditut, baina nahikoak dira niretzat.
- Kuadrillan asko gara, baina ez gara denak elkartzen.
- Nire lagun guztiak sare sozialetan ditut, ez ditut aurrez aurre ezagutzen.

c) Zer da lagun batengandik espero duzuna?

- Behar dudanean nire ondoan egotea: laguntzeko, entzuteko...
- Nik parrandarako bakarrik nahi ditut lagunak...
- Nik ez dut lagunengandik ezer espero, ahal dutena eta ahal dutenean elkartzea nahikoa da, ez?

2- Adiskide bat bazen...

Josuk eta Anttonek elkarrizketa bat izango dute hondartzan. Bideoa ikusi baino lehen, irakurri pasarte labur hau:



JOSU- Alde egiteko erabakia hartu nuenetik asko lasaitu naiz, baina arazo guztiak konponduta joan nahiko nuke. Eta, hasteko, **gure artekoa**.

ANTTON- Gure artean ez dago-eta ezer...

Zeri buruz ari da Josu, zuen ustez, “gure artekoa” esaten duenean?

- Anttonek lan gehiegi ematen dio aroztegian eta Josu orain arte ez da ausartu ezer esatera.
- Josuk inbidia pixka bat dio Anttoni, dena ondo ateratzen zaiola uste duelako eta, horregatik, berarekin petral samarra izan dela onartu du. Kontua argitu nahi du.
- Amaia eta Antton elkarrekin irteten hasi zirenean, Josuri ez zion graziarik egin. Josuk Anttonen eta bien arteko harremana hobetu nahi du, lagunak ere badirelako.
- Aroztegiko lana uztea erabaki zuenean, Anttoni arazo handia sortu ziola uste du Josuk. Hori argitu nahi du orain berarekin.

Ikusi bideoa, eta erantzun galderei:

1) Zer egiten du Josuk hondartzan? eta Anttonek?

.....

2) Zergatik dio Josuk Antton eta bien artekoa konpondu nahi duela?

.....

3) Nola erreazionatu du Anttonek?

.....

4) Nola amaitu da elkarrizketa?

.....

5) Nola ikusten duzue Antton eta Josuren arteko harremana? Adiskideak izango dira aurrerantzean?

.....



Jarri arreta denborazko perpausean: **Alde egiteko erabakia hartu zuenetik, lasaitu egin da Josu.**

KONTUAN HARTU

Denborazko perpausetan, **-(e)netik** egiturak noiztik galderari erantzuten dio. Prozesu baten hasiera zehazten du, eta aditz laguntzaileari edota trinkoari **-(e)netik** atzikia eransten zaio. Egitura honen azpian erlatibozkoa dago:

- erabakia hartu zuen **momentutik** → erabakia hartu zuenetik
- → Egia esan dionetik, lasaiago dago
- → Izarorekin hitz egin zuenetik, alai ikusten dute Josu

Aukeratu hiru ekintza eta adierazi noiztik egiten dituzun, edo ez dituzun egiten honakoak:

- | | |
|---------------------|-------------------------|
| - Angulak jan | - Lagunekin abestu |
| - Bizikleaz ibili | - Komiki bat irakurri |
| - Museo batera joan | - Kontzertu batera joan |

Adib.: Dantzatzerara joan

→ Haurrak izan genituenetik ez gara dantzatzerara joan.

→ Ni, berriz, dantza-eskolara joan nintzenetik astebururo joaten naiz dantzatzerara.

3- Lagunen arteko komeriak

Arrazoi asko daude lagun arteko harremana aldatzeko, haserretzeko, harremana estutzeko, galtzeko... Horietan jarriko dugu arreta.

KONTUAN HARTU

DELA-ETA / DIRELA-ETA

Egitura honek **ZER DELA(-)ETA?** (Ze arrazoi dela medio / Zer arrazoirengatik?) galderari erantzuten dio. Normalean **IZAN** aditzarekin erabiltzen da, baina ez beti. Ikus adibideak:

- Elurra **ZELA-ETA**, haurrak berandu iritsi ziren eskolara.
- Gaizki-ulertu bat **DELA-ETA** haserretu ziren lagunak.
- Gurasoak beti kezkatuta egoten gara semea-alabak **DIRELA-ETA**.
- Zer **DELA-ETA** ez zara lehenago etorri?
- Bere etxeko lorategian lan handia **DAGOELA-ETA**, laguntza bila etorri zaigu bizilaguna.
- Nortasun-agiririk ez **ZEUKALA-ETA**, ez zioten diskotekan sartzen utzi.

Jarraian hiru berri izango dituzu irakurtzeko (Lanketa lan-taldean eginez gero bana irakurri eta elkarri kontatu irakurritakoa). Irakurri ondoren, erantzun ondorengo galderari: **Zer dela-eta...?** Gero, osatu taula.

100.000 dolarreko altxorra

100.000 dolarreko altxorra aurkitu dute lurpean lagun bik. Altxorra bietako baten lorategian, zuhaitz bat lurretik ateratzen ari zirenean, aurkitu zuten. Dirua aurkitu zutenetik, ordea, lagun onak zirenak jada ez dira hain lagun. Bostonetik hurbil, Methueneko lorategi batean lanean ari ziren bi adiskidek aurkitu dute altxorra; 75 urte eman zituen altxorrak lurpean, eta barruan ia 100.000 dolar zituen kutxak. Altxorraren banaketak, ordea, liskarra sortu du adiskideen artean, eta, orain, jada ez dira hain lagun. Tim Crebase eta Barry Vilcliff zuhaitz bat lurretik ateratzen ari ziren lehenengoaren etxeko lorategian, billetez betetako kutxa aurkitu zutenean; zaharrenak 1899koak ziren eta berrienak 1929koak. Gainera, bankuko tituluak ere bazeuden kutxan. Orain, altxorra



banatzeko garaian, ez dira ados jartzen lagun biak; Crebasek, batetik, lorategia berea dela dio eta Vilcliffek, bestetik, pala berak ekarri zuela eta lagunari non zulatu ere berak esan ziola azpimarratzen du. Uste dute diru hori lapurtutakoa izan daitekeela edo, bestela, debekatutako edari alkoholdunekin lortutakoa.

Zer dela-eta haserretu dira bi lagunak?

Hirurogeita hamar urtetik gorako bi lagun anaiak direla konturatu dira

Hawaiikoak dira Alan Robinson eta Walter Macfarlene eta beti izan dira lagun minak. Orain jakin dute anaia biologikoak ere badirela. Alan eta Walter 15 hilabeteko aldearekin jaio ziren eta Oahun hazi ziren. Elkar ezagutu zutenetik lagun egin ziren. 50 urtetik gorako adiskidetasuna da bi lagun hauen artekoa. Walter Macfarlanek ez zuen bere aita ezagutu eta Alan Robinson adoptatu egin zuten. Walterrek DNA frogak egin zituen bere aita nor zen jakiteko. Emaitzak Ancestry izeneko webgunean partekatu zituen, bere benetako izenaren ordezkari pseudonimo bat erabiliz. Walter ikerketan ari zela jakin gabe, Alanek ere jakin nahi izan zuen nor zen bere aita eta



kasualitatez webgune berean eman zuen izena.

Webguneari esker eta bien arteko dei batzuen ondoren, pseudonimoen atzean nor zegoen jakin eta anaiak zirela jakin zuten. Ezusteko ikaragarria izan da bi lagun hauentzat, baina baita opari handia ere. Elkarrekin bidaiatzea eta bizitzaz gozatzea da bi anaiek duten eginkizunik garrantzitsuenak.

Zer dela-eta jo zuen Alaineke Walterren Ancestry enpresara?

Hondarribiko sugea, lagunei adarra jotzeko asmakizuna

Hondarribian suge arriskutsu bat zegoela zabaldu zen, baina gezurra zela argitu du Ertzaintzak egindako ikerketak. Emakume biren arteko txantxa izan da. Hondarribikoak dira bi lagunak, 40 urte ingurukoak. Ertzaintzak ondorioztatu duenez, Hondarribiko Amute paduratik aske zebilen Gabongo sugedorriaren albiste gezurra da, sugedorria ikusi omen zuen emakumeak dena asmatu egin zuela aitortu baitu. Lagunetako batek antza afrikar jatorriko suge bat topatu, sakelako telefonoarekin argazki bat atera eta Udaltzaingora jo zuen abisua ematera. Hori dela eta, udaltzainek, argazkia Internetetik ateratakoa ez zela ziurtatu ondoren, aurkikuntza ontzat jo eta inguruak itxi zituzten, oinezkoei handik paseatzea debekatzeko, sugedorri horren pozoiak pertsona bat hil dezakeelako. Aranzadi zientzia elkartekoekin eta foru basozainekin



harremanetan jarri ostean, sugerean bila hasi ziren eta tranpak jarri zizkioten. Bien bitartean, albiste sare sozialetan zabaldu eta hedabideetara ere heldu zen. WhatsApp taldeetan, ustezko sugedorriaren argazkia ere ibili zen. Animaliarenean bila luze ibili eta gero sugedorriaren arrastorik topatu ez zutenean, argazkiaren inguruko zalantzak piztu eta salaketa faltsua egin zuela egiaztatu zuten agenteek. Efero albiste-agentziak jakinarazi duenez, delitu penala egotzi diezaiokete argazkia zabaldu zuen pertsonari albiste faltsua zabaltzeagatik.

Zer dela-eta hasi zuen ikerketa Ertzaintzak?

			
	100.000 dolarreko altxorra	Hirurogeita hamar urtetik gorako bi lagun anaiak direla konturatu dira	Hondarribiko sugea, lagunei adarra jotzeko asmakizuna
Zein dira albistearen protagonistak?			
Nolakoa da beraien arteko harremana?			
Aldatu al da harreman hori albistean deskribatzen dena gertatu zenetik?			
Zer dela-eta?/Noiztik			

Zein da irakurri dituzuen artean albisterik bitxiena? Nola ikusten dituzue lagun horiek hemendik urte batzuetara? Adiskide izaten jarraituko dute? Zer dela-eta?

Orain kontatu zure esperientzia: lagunartean izandako komeriak, lagunarteko gatazka bat, lagun batek zuen artekoa traizionatu zuenekoa... Ereduan bezala, heldu honako eskemari:

- Noiz gertatu da istorioa, zein dira protagonistak?
- Nolakoa zen protagonisten arteko harremana?
- Nola aldatu zen harremana gertakizun hori gertatu zenetik?
- Zer dela-eta?

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

4- lagun guztiak ez dira adiskideak

Irakurri berri laburra eta jarri arreta izenburuan: “lagun” hitzak adiskidea esan nahi al du?

422 lagunek hartua dute parte Baqué lehiaketan

Durangoko gertaera historikoak argitaratu ziren azukre koxkorretako bilgarrietan Durangoko Turismo Bulegoak eta Cafés Baquék bultzatutako lehiaketak badu irabazlea: Naiara Vidal. 422 parte-hartzaile izan dira...



KONTUAN HARTU

“Lagun” hitzak adiera bat baino gehiago izan dezake, testuinguruaren arabera.

Lagun = adiskidea (gaztelaniazko amigo/a-ren parekoa)

Lagun = multzo bateko kide (gaztelaniazko persona/individuo/participante-ren parekidea).






- *Nire lagunekin joan nintzen mendira (nire adiskideekin).*
- *Zortzi lagun soilik azaldu dira kultur etxeko bilerara (zortzi pertsona, herritar).*

Lagun hitzak, era berean, hitz elkartu ugari sortzeko bide eman du euskaraz: Lagun mina = lagun handia (gaztelaniazko amigo/a íntimo/a) Neska-laguna/ Mutil-laguna = gaztelaniazko novio/a. Mintzalaguna = elkarriketa-kidea.

- *Nire lagun minari gertatzen zaidan guztia kontatzen diot. Ez dut sekreturik berarekin.*
- *Amaia Anttonen neska-laguna da eta Martin, berriz, Andresen mutil-laguna.*
- *Euskara praktikatzeko, mintzalagun aparta zara.*

5- Lagunartean adarra jotzen

Ikusi bideoa: Mando baten gainean... Adierazi nork egiten duen zer:

					
Zaldiz ibili	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Instrukzioak eman	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Adarra jo	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Beldurtuta egon	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Irteera antolatu	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

Nork nori jotzen dio adarra? Nola?

6- Hemen ez dago wifikik

Entzun audioa eta esan wifikik ez dagoen zein leku aipatzen dituzten gonbidatuek:

- Donostiako Alde Zaharra
- Iruñeko Alde Zaharra
- Bilboko taberna batzuk
- Bilboko Alde Zaharreko komunak
- Bilboko Artxanda mendia
- Donibane Garaziko tabernak
- Ziburuko taberna bat, Donibane Lohizunen dagoena

Galderei erantzun

- Zer iruditzen zaizue leku batzuetan wifikik ez egotea?
- Laguntzen al du elkarrekin gehiago hitz egiten?
- Lagunei arreta handiagoa eskaintzen zaie? Eman arrazoiak eta kontatu zuen esperientzia.

Aztertu zure herria / auzoa eta proposatu neurriak lagunetikiko komunikazioari trabak kentzeko.

.....

.....

.....

2- Adiskide bat bazen...

Zeri buruz ari da Josu, zuen ustez, “gure artekoa” esaten duenean?

c) Amaia eta Antton elkarrekin irteten hasi zirenean Josuri ez zion graziarik egin. Josuk Anttonen eta bien arteko harremana hobetu nahi du, lagunak ere badirelako.

Ikusi bideoa, eta erantzun galderari binaka:

1) Zer egiten du Josuk hondartzan? eta Anttonek?

Josu, atzerrira alde egin baino lehen, lasai egotera joan da hondartzara. Antton, berriz, surfean ibiltzera doa, aspaldiko ohitura berreskuratuz.

2) Zergatik dio Josuk Antton eta bere artekoa konpondu nahi duela?

Antton eta Amaia arteko harremana dela-eta. Bi lagunak elkarrekin hasteak ez zion graziarik egin, eta Anttonekin hori argitzeko beharra sentitu du Josuk; izan ere, Amaia berarentzat beti berezia izan dela aitortu dio, baina Anttonen adiskidetasuna ere estimatzen du.

3) Nola erreakzionatu du Anttonek?

Garrantzia kendu dio kontuari: bien artean ez dagoela ezer, bera ez dela arazoaz konturatu eta Amaiak ez diola ezer aipatu.













4) Nola amaitu da elkarriketa?

Josuk onena opa diela esan dio eta Anttonek surf egitera gonbidatu du. Hala ere, bakarrik joan da itsasora, Josuk ez baitzeukan ezer egokirik bainatzeko.

3- Lagunen arteko komeriak

	100.000 dolarreko altxorra	Hirurogeita hamar urtetik gorako bi lagun anaiak direla konturatu dira	Hondarribiko sugea, lagunei adarra jotzeko asmakizuna
Zein dira albistearen protagonistak?	Lorategian elkarrekin lanean ari ziren bi gizonezko estatubatuar.	Elkar ezagutu zutenetik lagunak ziren bi gizonezko hawaiiar.	40 urteko Hondarribiko bi emakumezko. Horietako bat, bromazalea.
Nolakoa da beraien arteko harremana?	Altxorra aurkitu baino lehen lagun onak ziren.	Txikitako lagunak dira.	Konfiantzazkoa, elkarri adarra jo diote-eta.
Aldatu al da harreman hori albistean deskribatzen dena gertatu zenetik?	Bai, orain ez dira hain lagun onak.	Bai, orain, anaiak direla dakitenetik harreman estuagoa daukate.	Berriak ez du argitzen, baina baietz pentsa daiteke.
Zer dela-eta?/Noiztik	Dirua delaeta / Altxorra Aurkitu dutenetik. Izan ere, ez dira ados jartzen kutxan dagoena banatzeko garaian.	DNA emaitzak direla-eta / emaitzak jakin zituztenetik.	Lau haizetara zabaldu den mezua dela-eta.

5- Lagunartean adarra jotzen

					
Zaldiz ibili	<input type="checkbox"/>				
Instrukzioak eman		<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Adarra jo	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>			<input type="checkbox"/>
Beldurtuta egon	<input type="checkbox"/>		<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Irteera antolatu	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>		<input type="checkbox"/>

6- Hemen ez dago wifirik

- Iruneko Alde Zaharra
- Bilboko Alde Zaharreko komunak
- Bilboko Artxanda mendia
- Ziburuko taberna bat, Donibane Lohizunen dagoena